

**UDALAREN OSOKO BILKUREAK BI MILA ETA HEMERETZIKO APIRILAREN HOGETA SEIAN
EGINIKO OHIKO BATZARRAREN AKTEA.**

BERTARATUAK

Leire Astelarra Badiola and.
Jesus M^a Bilbao Arego jn.
Elixabete Eiguren Astelarra and.
Maria Rosario Lamikiz Aranguena and.
Patxi Egurrola Goyogana jn.
Koldo Miren Olagibel Baqueriza jn.

EZ DA ETORRI

Jesus M^a Olagibel Baqueriza jn.

IDAZKARIA

M^a Jesus Idoiaga Uribe and.

Elantxoben, bi mila eta hemeretziko apirilaren hogeta seian, goizeko hamarrak eta hogeta hamaika diranean, lehenengo deialdian eratu da udalbatzea ohiko osoko bilkurea egiteko, alkatea buru dala eta goian aitatu diran zinegotzi jaun-andreak bertan dirala.

Bilkurearen fede emon dau M^a Jesus Idoiaga Uribe andreak, udalbatzako idazkariak.

Jarraian, gai-zerrendearen arabera emon jako hasikerea ekitaldiari, 10:31n, sasoiz banatu dalarik zinegotzi jaun-andreen artean, eta honako erabagi honeek hartu dira.

LEHENA.- 2018KO ABENDUAREN 14KO BILEREAREN AKTEA ONTZAT EMOTEA, BIDEZKOA BADA.

Aitatutako aktearen zirriborroa zinegotzien esku egon dan ezkeron, alkate jaunak itaundu dau zinegotzietakoren batek argipen edo zuzenketarik egin gura dauan bertan.

Bertan izan diran zinegotziek ez dabenez oharririk egin, ontzat emon da, bileran izan diran sei zinegotzien botoakaz, aho batez.

BIGARRENA. 2018KO AURREKONTUKO KONTU OROKORRA: BEHIN BETIKO ONESPENA.-

Kontuan hartu da 2018ko ekitaldiko Kontu Orokor hori bi mila eta hemeretziko martiaren hamahiruan prestau zala, Kontuen Batzordeak aldeko erispena emon eutsola 2019ko martiaren 16an eta hori jentaurrean egon zala 2019ko apirilaren 5eko 67. BAOan eta ondore horretarako taulan, eta jentaurreko epea iragan ostean ez dala ez alegazinerik ez oztoporik aurkeztu.

Bidezkoa da osoko bilkuran onestea 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra. Honako agiri honeek daukaz Kontu Orokorrak:

- Egoera-balantzea.
- Galeren eta irabazien kontua.
- Honeek dakarzan memoria:
 - 1.- Finantzazino-taulea.
 - 2.- Zorraren egoera-orria.
 - 3.- Aurrekontuko likidazioa eta Kontabilidade Orokorra lotzen dauzan informazino-eranskina.
 - 4.- Aktibo ibilgetua: mugimentuak.
 - 5.- Udalaren beraren fondoak.
 - 6.- Gastuak: galeren eta irabazien kontuko zor danaren partaidearen banakapena.
 - 7.- Ordena kontuak.
- Aurrekontuaren likidazioa.
- Egiatzapen-balantzea.
- Kredituen aldaketen egoera-orria.
- Egoerearen eta balio-mugimentuen orria.
- Aurrekontuko emaitzak eta kontabilidadekoak bateratzeko orria.
- Ondasunen inbentarioa 2018-12-31n eguneratua.

Ondorioz, kontu-hartzailearen txostenaren arabera, 2018ko ekitaldiko likidazioa egin da, diru-zaintzako gerakin positiboa, hain zuzen ehun eta bost mila berrehun eta larogeta hamazortzi euro eta hirurogeta zortzi zentimo (105.298,68 €).

Jarraian, eta aho batez, 2018ko ekitaldiari jagokon Kontu Orokorra onetsi da.

HIRUGARRENA.- ALKATETZEAREN DEKRETUAREN BARRI EMOTEA

Zinegotzi jaun-andreen eskuetan egon dira Alkatetzearen 2018ko 30.etik 37.era eta 2019ko 1.etik 19.era arteko dekretuak, data honeetakoak: abenduaren hamahirukoa, hamalaukoa, hogeta zazpikoa, hogeta zortzi eta hogeta hamaikakoa; urtarrilaren hirukoa, hamabostekoa, hogeta bikoa, hogeta bostekoa, hogeta bederatzikoa; zezeilaren laukoa, zazpikoa, hamaikakoa, hamazortzikoa, hogeta bikoa, hogeta seikoa; martiaren bostekoa, hamahirukoa eta apirilaren laukoa, honeei buruzkoak: obra-lizentziak emotea, 1, 2, 3 eta 4. afektazino obren adjudikazioa eta 2018ko ezustekoak, obra-lizentziak emotea, kreditu-aldaketak transferentzien bidea onestea eta 2018ko ekitaldian eta aurrekoetan ordaintzeko dagozan eskubidea baliobakotzea, zutabe homologatuak jarteko baimena emotea, Elantxobeko Udalaren hirigintza eta arkitekturako aholkularitza zerbitzua kontratatuko adjudikazioa, obra-lizentzia emotea, obra-adjudikazioa Olagarroari baliobakotzea eta Ar Mateos-i adjudiketea, Olagarroari entzunaldi-izapidea emotea, 2019ko trakzino mekanikoko ibilgailuen ganeko zergaren errolda onestea, obra-lizentzia emotea, Nagusia 21.eko bigarren eskumako etxebizitzaren errentamendua emotea, Euskadiko Batzorde Juridiko Aholku-emailearen erispen-eskaera (Olagarroagaz sinatutako kontratua desegiteari jagokona), erroldan ofiziozko baja emoteko espedientea hastea, obra-lizentzia emotea, kredituak aldatzeko espedientea onestea (1/2019), bztanleen erroldan ofiziozko baja emoteko espedientea hastea, obra-lizentzia emotea, Gernika-Lumoko idazkari posturako zerbitzu-eginkizunen izendapena emotea eta udal honetako idazkari-kontuhartzaile

posturako bitarteko funtzionarioa izendatzea, 2018ko aurrekontuko likidazio onestea, 3. ziertagiria baliobakotzea eta Olagarroa zordunaren eta hartzekodunaren eskubideak aitortzea eta biztanleen erroldan ofiziozko baja emoteko espedientea hasia, hurrenez hurren.

Jakinaren ganean gelditu dira bertaratutakoak.

LAUGARRENA.- 2019KO KULTUR ETA KIROL JARDUERETARAKO LAGUNTZINOEN DEIALDIA

Bertaratutakoen esku dago 2018ko ekitaldian eginiko deialdia, laguntzinoak emoteko ordenantzearen arabera; zehatzago esateko, 7.2. artikulua "Emoteko deialdia... osoko bilkurearen erabagiaren bidez egingo da... eta 8.2. artikulua Diru-laguntzinoen eskabideak jagokan deialdiak ezarten dauan epearen barruan aurkeztuko dira...; 8.3. artikulua, proiektu jakinetarako diru-laguntzinoen eskabideak, deialdi bidez emoten ez diranetarako, gitxienez jarduerak hasi eta hilabete lehenago aurkeztu beharko dira".

Urteko deialdia onestea erabagi da, eta horretarako, hilabete biko epea emon da eskabideak aurkezteko, iragarki hau Bizkaiko aldizkari ofizialean argitaratuko danetik hasita.

BOSGARRENA.- IRISGARRITASUN PLANA: ONESPENA

Bertaratutakoei jakinarazten jake plana eskuratzea espero genduala osoko bilkura honetarako, baina atzo bialdu jakon udalari posta elektronikoko bidez. Halanda ze, ingelan egileei batzarrerako deialdia egitea proponiduten da, udaletxean, planaren edukiaren barri emon daien.

SEIGARRENA.- 2019KO LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOEREA

Udaleko langileek 2019ko apirilaren 16an sinatutako eta aurkeztutako idatziaren barri emon da (189 zenbakia sarrera-erregistroan), 2019. urteari jagokozan ordainsarien igoerak aplikau dakien eskatzeko, 2019ko martiaren 8ko 48. zenbakiko EHAA argitaratutako zezeilaren 26ko 18/2019 ebazpenagaz bat etorritz. Horren bidez, 2019rako ordainsarien igoerak onetsi ziran. Horretarako, 2018ko abenduaren 31n ezarritako ordainsariei jagokenez apliketako eskatu da, hau da, % 2,25eko igoerea.

Euren eritxia galdetu jake bertaratu diranei, eta baiezkoa emon dabe, hau da, aho batez onetsi dabe ordainarien igoerea.

ZAZPIGARRENA.- INFORMAZINOIA:

UDALAK ETA OLAGARROAK ALKARREGAZ ADOSTUTAKO EBAZPENA

Bertaratu diranen esku egon da Elantxobeko Udalak eta Olagarroak 2019ko martiaren 22an alkarregaz adostutako ebazpenaren agiria, eta horri jagokonez, Koldo zinegotziak amaitu barik dagoan harresiaz galdetu dau. Obra horretan gertatu dana azaldu jako.

2019KO AURREKONTUAREN BETARAZPEN-EGOEREA

Idazkari-kontuhartzaileak bi mila eta hemeretzi apirilaren hamaikan aurkeztu eta lorturiko betearazpen-egoerearen ganeko argibideak emon dauz, baita kapitulu mailako sarreren eta gastuen laburpena eta sarreren aplikazio banakatuen zerrendea

be, honako honeek barne: hasikerako aurreikuspeneko zehaztasunak, aldaketak, behin betiko aurreikuspena, eskubide garbiak, eginiko sarrerak, itzulketak, bilketa likidoa, kobratzeko dagozanak eta betearazpenaren egoerea. Ganera, hasierako kredituen, guztiko kredituen, aintzatetsitako betebeharren, eginiko ordainketen, itzulketen, ordainketa likidoen, ordaintzeke dagozanen eta betearazpenaren egoerearen ganeko xehetasunak daukiezan aplikazioen araberrako gastuen partidak be badaukaz.

ATALAIA-HAMALAU BIDE PASEALEKURAKO DIRU-LAGUNTZINOA

Aldundiari eginiko diru-laguntzino eskaerearen barri emon da (169/2018 F.D.), udalaren eskumeneko herri erabilerari lotutako azpiegituretarako inbertsino legez, Atalaitik Hamalau biderako oinezkoen pasealekuak urbanizetako obrak egiteko. Horretarako, altzairu galbanizatuzko baranda barria jarri eta atseden-gunea berreskuratu beharra dago. Guztira 32.479,06 €-ko aurrekontua behar da jarduketea burutzeko.

Aldundiak Atalaia eta Hamalau Bide arteko oinezkoen pasealekua konpontzeko apirilaren 17an jasotako (193 zenbakia sarrera-erregistroan) laguntzinoaren barri emon jake bertaratu diranei. Guztira 25.115,96 € dira.

ZORTZIGARRENA.- ESKAERAK, GALDERAK ETA INTERPELAZINOAK

2019KO MADALENETAN TXOSNA JARTEKO BAIMEN-ESKAEREA

Bertaraturikoen eskura egon da Elantxobeko Arraun Taldeko presidenteordeak aurkezturiko eskabidea, Madalena egunean, garagarrilaren 22an, portuan txosna jarteko.

Jesus M^a Bilbao zinegotziak berba egiteko txandea hartu dau, hurrengo udalbatzarrean zein egongo dan ez dakiela jakinarazoteko. Bere aldetik ez dago arazorik. Aurreko urtean moduan, Eusko Jaurlaritzako Portuei eskatu behar deutsie baimena.

Koldo zinegotziak jakinarazo dau txosna jartearen kontra dagoala. Astelarraren legegintzaldian akordioa lortu zan Aldundiagaz txosnarik ez ipinteko. Aldundiara joan eta instalazinoa taldearen mesederako izango litzatekeela alegatzea proponiduten dau, jarteko modua emon daien.

Elixabete Eiguren zinegotziak adierazo dau ez zala halango akordiorik izan. Aldundiak esan eban ze, antzeko zeozer gertatzen bada, eurek ez dabela ordainduko eskatzen jaken kalte-ordaina.

ARRISKUTSUAK IZAN LEITEKEZAN TXAKURRAK

Patxi Egurrola zinegotziak arriskutsuak izan leitekezan eta lotuta eroaten ez diran txakur batzuen arazoaren barri emon dau, muturrekoa ipini barik dabilzanak, etab. Arriskutsuak dira auzokideentzat, eta zeozer egin beharra dago.

Leire Astelarra 1. alkateordeak adierazo dau Gernikako Ertzainetxeakoakaz egin dabela berba, idatzia bialdu jako jaubeari etxera. Haregaz telefonoz berba egiten ahalegindu arren, ez dabe lortu.

Koldo Olaguibeleg galdetu dau ea erregistrauta dagozan udalean, eta ezetz erantzun jako. Jaubea orain dala gitxi etorri da herrira, eta animalia arriskutsuak eukiteko eskatzen dan dokumentazinoa eskatu dakiola proponidu dau.

KORRIKA

Koldo zinegotziak galdetu dau zergaitik ez dan pasau Korrika herritik, eta Jesus Bilbaok erantzun dau ez dakiela, baina egia da, aurten ez da sartu. Esan eutsienez, kilometroa erosi eitekeela Natxituatik aurrerako tartean, eta horrexegaitik ez eban erosi kilometrorik udalak. Orain dala urte bi erosi zan, baina jente gitxik hartu eban parte.

Kontsumobide dala-eta, Koldok barriro dino edaririk saltzen ez dauan portuko establezimentuaren ganeko eskumena Udalarena dala,, Jesus Bilbaok eta Patxi Egurrolak erantzun deusie onartzeko eskubidea dagoala.

Koldok adierazo dau Gernikako ezinduen alkarteari eta presoan aldeko alkarteari ez jakela laguntzinorik emon.

Laguntzinorik eskatu daben galdetuta, idazkariak jakinarazo dau presoan aldeko alkarteak baietz, baina ez jake diru-laguntzinorik emon urte baten be. Asinsoc ezinduen alkarteak, barriz, ez dau gogoan aurten eskatu izana, baina laguntzinoa emoten jake.

Patxi Egurrolak Buelti eta argazkien museoa proiektuez galdetuta, laguntzino-eskaerak onartu ez zirala erantzun jako.

Eta gai-zerrendakoetatik aparte beste gairik jorratzeko ez dagoanez, amaitutzat emon dau bilkurea alkate jaunak, goizeko hamaikak eta hogeta bi diranean. Akta hau alkate jaunak sinatu dau, eta hori guztia egiaztatzen dot idazkaria naizen aldetik.